

**Fiskalizazio Txostena**  
**Informe de Fiscalización**

**Anoetako Udala**

**Ayuntamiento de Anoeta**

**1998**



Heri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas



## **AURKIBIDEA/ÍNDICE**

<b>SARRERA</b> .....	<b>3</b>
<b>ONDORIOAK</b> .....	<b>4</b>
I. Legea betetzea.....	4
II. Kontularitzako alderdiak .....	5
III. Finantza analisia eta kudeaketaren alderdiak.....	6
III.1 Finantza analisia .....	6
III.2 Kudeaketaren bestelako alderdiak eta gomendioak.....	9
<b>ERANSKINAK</b> .....	<b>14</b>
A.1 Kontratazioaren analisia .....	14
A.2 Urteko kontuak.....	15
<b>INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>17</b>
<b>CONCLUSIONES</b> .....	<b>18</b>
I. Cumplimiento de la legalidad.....	18
II. Aspectos contables.....	19
III. Análisis financiero y aspectos de gestión.....	20
III.1 Análisis financiero.....	20
III.2 Otros aspectos de gestión y recomendaciones .....	23
<b>ANEXOS</b> .....	<b>28</b>
A.1 Análisis de la contratación .....	28
A.2 Cuentas anuales.....	29



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, bera arautzen duen 1/88 Legeak agindutakoari jarraiki, Anoetako Udalaren ekonomia-finantza jarduera 1998ko urtealdian zer-nolakoa izan den aztertu du, 1999ko martxoa-2000ko martxoa Urteko Lan Programan barne hartua dagoena.

Lana udal jardueraren azterketa-diagnostikoa egitea izan da eta honenbestez, azterlanean ez ditugu bete-beteko fiskalizazio batean egin ohi diren prozedura guztiak jarraitu; ordea, froga laburtuak egin dira, bai hedadurari dagokionez, baita horien alkantzeari dagokionez ere.

Aztertu ditugun alorrak honako hauek izan dira: antolakuntza orokorra, aurrekontu eta kontularitzako kontrolak, tributuen kudeaketa eta dirubilketan erabili diren prozedurak, langileen kudeaketa zerbitzu eta obren kontratazioa eta dirulaguntzen emakida.

Nahiz eta txostenak ez duen iritzirik ematen Udalak ezargarria zaion legezko arautegia betetzeari dagokionez, ezta onartutako Kontu Orokorraren gaineko auditoretza finantzarioari buruz ere, azterlanean azaleratu diren hutsak Ondorioen ataleko I. eta II. Idazpuruetan jaso ditugu. Ondotik, III.1 idazpuruak Udalaren gaineko finantza analisia erakusten du eta III.2 idazpuruak, berriz, horren kudeaketa hobetzeko hainbat iradokizun osagarri proposatzen ditu.

Anoetako Udalak 1998ko urtarrilaren 1ean 1.749 biztanle zituen eta honako hauetan partaidetza zuen: Gipuzkoako Uren Partzuergoan; herri irakaskuntza mankomunitatean (ikastetxe bat mantentzeko); Tolosaldea Garatzen, SA sozietatean (eskualdearen garapen ekonomikorako) eta Tolosaldea Mendi Nekazaritza Elkartean.



## ONDORIOAK

### I. LEGEA BETETZEA

Sarreran azaldutako hedadurarekin egin dugun azterlanean, honako legehauste adierazgarri hauek aurkitu ditugu:

#### Aurrekontu eta kontularitzako kontrola

- 1998ko aurrekontuaren likidazioa Alkateak 99.5.26an oniritzi zuen, eskagarri diren epeakiko bi hilabeteko atzeraldiarekin. Txosten hau idatzi dugun datan, egin gabe dago Kontu Orokorra, eta honenbestez, Udaltzarak ez ditu urte horretako udalaren kontuak ez aztertu, ezta oniritzi ere (4/91 F Aren 49. eta 63. artikulua).

#### Ondarea eta ondasun zerrenda

- Udalaren ondasun zerrenda ez da 1993az geroztik gaurkotu. Egindako inbertsio garrantzitsuek berariaz gomendarazten digute urtero gaurkotu beharreko legeko mandatua betetzea (1372/86 EDren 33. art., Ondasunen Arautegia).

#### Funtzio publikoa

- Udalak aurreko urteetatik zerbitzu ematen ari ziren aldibaterako 4 langilerekin aldizkako lan kontratuak formaldu zituen (urritik maiatzera urteko aldi bakoitzean), izan ere, Lan-arloko Epaitegi baten sententziak harremanaren izaera egonkorra aitortzen baitzuen. Kontratu hauen helburua musika eskolak ematea da eta soldatak urteko 1,6 eta 1,8 milioi pezeta bitartekoak dira.

Lanpostu publikora iristeko prozedura honek, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratzen ditu (Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 25. art.).

- Udalak 1998an ordainketak egin zizkien pertsona fisikoei, eurekin lan edo lanbide kontraturik batere gauzatu gabe, eta kopuru horiek Foru Ogasuntzari aitortu gabe:

PERTSONA FISIKOEI ORDAINKETAK	Milioi pta.n
Musikako lau irakasle (*) .....	2,0
Judo, keramika eta pilota monitorea.....	1,4
Konponketa txikiak, jaiak, garbiketa, e.a.....	1,1
<b>Guztira</b>	<b>4,5</b>

(\*) Aurreko idazatik 4 kontratatu finkoetz gain

- 98.9.3ko Udaltzarak 1998rako Arcepafe ezartzea oniritzi zuen, 1997. urtearekiko %3,02ko igoerarekin. Honek 1998rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea urratzen du (65/97 Legearen 18.2. art.), urte horretako ordainsariek ez zutela %2,1etik gorako igoerarik izango agintzen baitu.



## Kontratazioa

Udalak guztira 92 milioi pezetan esleitutako 5 kontratu aztertu ditugu eta ondoko legehauste hauek aurkitu (ikus A.1 eranskina):

- Gune berdeak mantentzeko kontratuaren esleipena, 2,2 milioi pezetako gastua 1998an, publizitate eta lehiaketarik gabe gauzatu zen. Pabeloiko teilatua berritzeko 5,1 milioi pezetako kontratua, hainbat kontratariri eskaintzak eskatu ondoren esleitu zen, derrigorrezkoa den lehiaketa deitu gabe (Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko 13/95 Legearen 11.1 art./APKL).

Bi kasuetan esleipena egin aurretiko izapideak ez ziren behar hainbatekoak izan, ez baitziren xehetasunez zehaztu kontratatu beharreko lanak (plegu teknikoa edo aurrekontua); orobat, ez zen administrazio-plegurik egin (hautaketarako irizpideak, zigorrak, e.a.), eta ez zitzaion esleipen hartzaileari obligazio fiskal eta gizartekoetan eguneratua zegoelako egiaztagiririk eskatu (APKLren 11.2 eta 20.f art.).

- Herriko Plazan lurrazpiko garajeak eraikitzeko lanek hainbat aldaketa izan zituzten eta horren ondorioz, likidazio-kopurua 47,7 milioi pezetara arte igo zen, esleitutako zenbatekoa baino %18 altuagoa. Arautegiak agintzen du proiektuaren zainahi aldaketa egiteratu aurretik oniritzi behar dela (APKLren 146. art. eta Obren Plegu Orokorren 62. klausula).
- Aztertu ditugun espedienteetatik batek ere ez du Idazkari-Artekariaren derrigorrezko txostena jasotzen, Alkateak edo Udalbatzak esleitu aurretik ezargarriak diren legezko betekizunak betetzen direla egiaztatu behar duena (APKLren 11.2g).

## II. KONTULARITZAKO ALDERDIAK

Egin dugun azterlanean, sarrerako atalean azaldutako hedapena izan duena, ondoko legehausteak aurkitu ditugu, Diruzaintza gerakina zehazteko eragina izango luketenak:

- Udalak, zenbaitetan, etorkizunean egin asmo dituen inbertsioei dagozkien erabili gabeko kredituen kontzeptuan gastua aitortzen du. Horregatik, honekin baterako Likidazioak 1998ko ordaintzeko obligazioak eta 98.12.31n eskagarriak ez ziren aurrekontu itxienak barne hartzen ditu, 117,5 milioi pezetakoak; urtealdi itxieran Diruzaintza gerakina kopuru horretan gehitu behar litzateke. Kopuru honetatik, 11,2 milioi pezeta baizik ez zeuden esleituak data berean.



### III. FINANTZA ANALISIA ETA KUDEAKETAREN ALDERDIAK

#### III.1 FINANTZA ANALISIA

Geroko inbertsio-programen finantzaketa, batik bat, bi barneko aldakiren baitakoa da: eragiketa arruntek sortutako emaitza eta zorpidetza handiagoa izateko aukera batetik, eta kanpoko aldaki baten baitakoa, bestetik: beste erakunde batzuetatik eskura ditzakeen kapital dirulaguntzak. Inoiz, Diruzaintza gerakinak garrantzia izan dezake, oraindik erabili ez den aurreko urtealdietako finantzaketa erakutsi baitezake.

Hona hemen udalaren magnitude nagusiak azken urteetan, onartutako likidazioetatik eskuratu direnak:

FINANTZA AZTERKETA	Milioi pezetan				Mila pezeta / biztanle				Erref. 97 (*)	
	Urtea				Urtea				Gip	Eusk
	95	96	97	98	95	96	97	98		
Dirusarrerak, 1 - 3 kap.....	46	42	49	67	26	24	28	38	43	46
Dirusarrerak 4 eta 5 kap.....	83	147	105	111	48	84	60	64	65	56
<b>A. Dirusarrera arruntak</b>	<b>129</b>	<b>189</b>	<b>154</b>	<b>178</b>	<b>74</b>	<b>108</b>	<b>88</b>	<b>102</b>	<b>108</b>	<b>102</b>
Langileen gastuak .....	52	57	64	63	30	33	36	36	29	29
Gastuak 2 eta 4 kap.....	47	48	52	60	27	27	30	34	43	44
<b>B. Funtzionamendu gastuak</b>	<b>99</b>	<b>105</b>	<b>116</b>	<b>123</b>	<b>57</b>	<b>60</b>	<b>66</b>	<b>70</b>	<b>72</b>	<b>73</b>
Aurrezki gordina (A-B).....	30	84	38	55	17	48	22	32	36	29
Finantza gastuak, 3 kap.....	2	2	1	1	1	1	1	1	3	2
<b>Emaitza arrunta</b>	<b>28</b>	<b>82</b>	<b>37</b>	<b>54</b>	<b>16</b>	<b>47</b>	<b>21</b>	<b>31</b>	<b>33</b>	<b>27</b>
Jasotako kapital dirulaguntzak.....	1	1	2	0	1	0	1	0	9	24
6 eta 7 kap. inbertsioak (**).....	33	66	73	17	19	38	42	10	28	36
Diruzaintza soberak. 12-31n (**).	23	34	92	130	13	19	52	74	29	40
Zorpidetzak 12-31n.....	21	17	12	7	12	10	7	4	47	30

(\*) Gipuzkoa / Euskadiko 1.000 eta 5.000 biztanle bitarteko Udalen batezbestekoak 1997an

Biztanleak 1.749

(\*\*) Kopuru hauek HKEEk egokitu ditu.

#### Aurrezki gordina

Anoetako udalak 1997 eta 1998ko urtealdietan sortutako biztanleko aurrezki gordina (22.000 eta 32.000 pta./biztanleko) bere tamainako Gipuzkoako udalena baino txikiagoa da (36.000).

Udalak duen presio fiskal txikiagoak argitzen du alde horren zergatia. IBI-Urbanoan ezargarria den tipoa %0,45ekoa da, Gipuzkoako tamaina bereko udalen %0,54ko batezbestekoaren aldean; gainera, bere sailekoek baino %18ko oinarri zergagarri txikiagoa dauka. IAEn 1,21eko koefizientea ezartzen da, 1,27ko batezbestekoaren aldean (GFDk argitaratzen duen Gida argitalpenetik eskuratutako datuak).

1998an zerga-sarrerak batezbestekoari gerturatzen zaizkio Eraikuntzen gaineko zerga dela eta, izan ere, Herriko Plazan 30 etxebizitza eraikitzen hasi baitira.




Udal zerbitzuen funtzionamendu kostuak batezbestekoa baino zertxobait baxuagoak dira (66.000 pta./biztanleko 1997an 72.000ren aldean). Egiturari dagokionez, Udalak bere langileekin egiteko kopuru handiagoa gauzatzen duela ikusi dugu, zerbitzuak azpikontratatu edo amankomunean egiteko aukerari aurkajarrita.

## Zorpidetza

### EMAITZA ARRUNTA ETA ZORPIDETZA

Mila pta./bizt.



Gipuzkoako zutabeak 1997ko urtealdiari dagozkio


98.12.31ko zorpidetza oso txikia zen eta urritzeko joera zuena, gainera; honela, bada, udalaren egoera, tamaina bereko udalena baino askoz hobea da (biztanleko 4.000 pezetako zorra, 47.000ren aldean). Aztertu ditugun 4 urteetan ez da mailegu gehiago kontratatu eta 19 milioi pezeta zorra murrizteko erabili dira.



## Inbertsioak

### INBERTSIOAK

Mila pta./bizt.



Gipuzkoako zutabea 1997ko urtealdiari dagokio

Aipatu den moduan Udalak inbertsioen kontularitzako erregistroa aurreratzen du. Lau urteetan egiaz exekutaturako inbertsioak 189 milioi pezetakoak izan dira eta horietatik garrantzitsuenak, Herriko Plazan egindako lanak (garajeak, lursailen erosketa eta jolastokia, 48, 39 eta 17 milioi pezetan, hurrenez hurren) eta jubilatuentzako areto bat erostea izan dira (12 milioi pezetan).

Epe horretako obren finantzaketa, hein handi batean, garaje-tokiak erabiltzeko baimenen bitartez eta lursailen salmenta baten bitartez gauzatu da; lehenengo kasuan, 48 milioi pezeta erregistratu dira 1996an sarreren 5. atalburuan; eta bigarrenean, 98 milioi pezeta erregistratu dira 1997an 6. atalburuan.

Inbertsioetarako eskuratutako kapital dirulaguntzak kopuru txikikoak dira eta tamaina bereko udalen batezbestekoa baino txikiagoak; izan ere, orokorrean, foru programen helburuen artean barne hartu gabeko inbertsio proiektuak izan ohi baitira (aldi honetan, polikiroldegi eta kultur-etxeak eraikitzea).

### Diruzaintza gaidikina

Udalaren Diruzaintza gaidikina gainerako udalena baino txikiagoa da; hau hala gertatzen da etorkizunean egin asmo diren obrak iada gauzaturako gastu modura kontuetaartzeko irizpidea erabili ohi delako, horren ondorioz, ordaintzeke dagoen kopuruak ez du udal diruzaintzari eskagarriak zaizkien kopuruen egiazko egoera zein den islatzen.

### Ondorioa

Aurrekontu egindako eta gauzatzeko dauden inbertsioei dagokienez, Udalaren finantza egoerak gerakinaren konturako inbertsioak egiteko eta berriz zorpidetzara jotzeko bide ematen dio. Egungo aurrezki maila baxua bada ere, presio fiskala antzeko udalerrietakoa baino baxuagoa delako, faktore hau etorkizunean balizko finantzaketa-iturri modura hartu behar da.





### III.2 KUDEAKETAREN BESTELAKO ALDERDIAK ETA GOMENDIOAK

#### Aurrekontuak eta kontabilitatea

##### Kontuataratzean atzerapenak

Azterketa egin genuen datetan, 2000ko urtarrilean, gastuen kontabilizazioak 3 hilabeteko atzerapena zuen; izan ere, kontabilitatearen ardura zuen administrariaren lanpostua hutsik geratu baitzen udaletxean.

Udalak premiaz eskaini behar ditu baliabideak jarduera administratiboa egunera ekartzeko.

##### Hitzartutako gastuaren gaineko kontrola: D atala

Artekaritza kontrola ez da dagokion ordainagiria iristen den arte gauzatzen. Eragiketak ordaintzen diren unean edo ondoren kontabilizatzen dira, ordaintzeko dauden zenbatekoak urtealdia itxitakoan erregistratuz.

Gastuaren kontrola ordainagiria iritsi aurretik egin behar da, gutxienez 100.000 pezeta eta lehiaketa deitzeko gutxienerako muga bitarteko eragiketei dagokienez.

Honenbestez, gastuaren kontrola lortzeko eskari-orri bat bete behar litzateke, gastua proposatzen duen teknikariak bete beharrekoa eta baita Idazkariak (kontrolerako eta, baita, eskaria bideratzeko ere) eta Alkateak edo horretarako baimena duen zinegotziak.

Legez derrigorrezkoa ez bada ere, gastuen D atala Alkatearen dekretuarekin kontuataratzea gomendatzen dugu; honek ez du arazorik sortzen, izan ere, aplikazio informatikoak horretarako bide ematen baitu.

##### Sailkapen funtzionala, aurrekontuaren helburu eta adierazleak

Udalaren sailkapen funtzionalak, orokorrean, egitura zuzena erakusten du. Aurrekontuak, ordea, ez zuen informaziorik jasotzen esparru bakoitzeko udal arduradunek garatu beharreko egintzei eta eskuratu beharreko helburuei buruz.

Aurrekontua, agiri ekonomikoa izateaz gain, urtealdian egingo diren egintzei buruzko konpromisoa ere bada eta honenbestez, Udalak horiei buruzko Memoria deskribatzailea egin behar luke.



### Bestelako alderdiak

- 1998ko urtealdiaren aurrekontua ez zuten 1998ko otsailaren 18ra arte oniritzi, eta behinbetiko onirizpena martxoaren 27ko Gipuzkoako Agintaritzaren Aldizkarian eman zen argitara.
- Exekuzioari buruzko araua luzeegia ez izan arren, arautegi orokorreko hainbat atal errepikatzen ditu, alde batera utz daitezkeenak, dokumentua udalaren bereizgarrietan oinarrituz.
- Udalak ez du urteko itxiera dela eta, kaudimengabeziatarako zuzkidura kalkulatzeko.
- Abenduko gizarte kuotak hurrengo urtealdiari ezartzen zaizkio. Orobat, kopuru txikiagoko ordainagiri ugari, guztira 3 milioi pezetakoak, 1998aren kontura aitortu behar ziratekeen, urtealdi horretan zorpetu baitzen gastua.

### Zergen kudeaketa eta dirubilketa

#### Dirubilketa jardueraren gaineko kontrola

Kudeaketa propioko zergetatik kobratzeko dauden saldoen kontularitzako oharpenak urteko itxiera egiten denean gauzatzen dira, urtean zehar egiten diren kobrantzak erregistratzera mugatuz.

Ur eta estolderiaren horniketetan, kobratzeko dauden ordainagiriak hurrengo hiru hileko erroldari pilatzen zitzaizkion eta honenbestez, kontabilitateak egindako kobrantzak baizik ez ditu erakusten.

Jarduera Ekonomikoei buruzko Zergak arazo berezi bat sortzen du, izan ere, zerga hau Diputazioak kudeatzen baitu eta informazio osagabea bidaltzen eta Udalak ez daki zein diren kobratzeko dauden saldoak.

Kontabilitateak Udalaren aldeko eskubideak sortze-sortzetik erakutsi behar ditu, errolda edo likidazioa onartzen denean. Era honetan, kontularitzako erregistroek denbora guztian ematen dute kobratzeko saldoen berri eta baita eskubide horietan eragina duten bestelako ebazpenen berri ere: baliogabetzeak, konpentsazioak, e.a.

Udalak Diputazioari JEZ kudeatzeko bi administrazioen artean izenpetutako hitzarmenaren baldintzak betetzeko eskatu behar dio, dirubilketarako jarduerari buruzko informazioa bidaltzea arautzen dutenak.

### Bestelako alderdiak

- Udalak Hiri izaerako Lursailen Balioaren Igoerari buruzko Zerga batezbestean hiru hilabeteko atzerapenez likidatzen du.
- Udalak hirigintza lizentzien eskabideak kontrolatzeko erregistro bat dauka, baina obra txikietarako soilik erabiltzen da, bolumen handiagoko proiektuetarako eskabideak erregistratu gabe (1998an 4 eskabide ez dira barne hartu).



- 30 etxebizita eraikitzeko lursailen salmenta batek, obra amaitutakoan lokal bat eta garaje plazak ematea aurreikusten zuen; kobrantza eskubide horren gerorapena berariaz bermatu behar zuen udalak.
- 1998rako agintarau fiskalen aldaketen behin-betiko onarpena Gipuzkoako Agintaritzaren Aldizkarian 1998ko urtarrilaren 23an eman zen argitara. Atzerapenak ez du arazorik eragiten, aldaketak urtealdian zehar zorpidetzen diren tasa eta prezio publikoetan soilik baitu eragina, baina arreta berezia eman behar zaie epeei esparru zergagarrian, formazko zeinahi hutsek eskubideen kobragarritasunean eragina izan baitezake.
- Ibilgailuen gaineko Zergaren helbideraketa saritzea komeniko litzateke, %58an dagoena.

## Langileria

### Ordezkoak eta lantzean behingo lanak

Udalak 1998an lan kontratuak gauzatu zituen bajak bete edo noizean behingo lanak egiteko. Garrantzitsuena, kultur dinamizatzailarena, deialdi publiko bitartez egin zen. Gainerako 13ak, guztira 3,5 milioi pezetako ordainsariak eskuratu zituztenak, arauzko espedienterik gabe bideratu ziren, deialdiari publizitatea udalaren iragarki oholean soilik eman zitzaiola.

**Legeak agindutakoari jarraiki, ordezkoak eta lantzean behingo lan ohikoenei aurre egiteko lan-poltsak sortzea gomendatzen dugu.**

### Lanpostuen zerrenda

Funtzionarioen bi lanposturi LZn izendatu zaien ordainsari-maila (Arcepafero maila), 343/92 Dekretuak funtzionario-multzo horrentzat aurreikusten dituen mailen artean minimoaz azpikoa da.

**LZk lanpostuari izendatutako lanpostu-osagarriaren maila adierazi behar du. Bestalde, azaldutako egoera ez da oso larria, baina, Arcepaferen mailak eta lanpostuaren osagarriarenak ez dira nahastu behar.**

Funtzionario postuetako bat hutsik zegoen eta langileen eranskinean aurrekontuko zuzkidurarik gabe; honenbestez, bidezkoa da amortizatzea.

Hiru lanpostu LZn %48-50eko dedikazioarekin ageri dira, beste administrazio batzuekin kostu eta zerbitzuak zatikatzen direla adierazteko. Aurrekontuaren eranskinean kopurua osorik jasotzen da, lan kontratuaren titular bakarra Udala baita.

**LZ zuzendu edo bestela, kontratuaren errealitatea Udalaren egiazko beharrianetara egokitu.**



## Kontratazioa eta gastuak

### Kopuru txikiko erosketak

2 milioi pezetatik beherako ondasun-erosketak eta zerbitzuetarako kontratuak, eta 5 milioi pezetatik beherako obrak ez zaizkio indarreko arautegian arauzko tramitazioari meneratzen, kontratu txikitzat hartzen baitira.

Muga bat ezartzea gomendatzen dugu, 500.000 pezeta esate baterako, eta kopuru horretatik aurrera gutxienez hiru eskaintza eskatu behar lirateke, gutxienerako betekizun formalak betetzeaz gain: erosiko diren ondasunen edo kontratatuko diren lanen deskribapen zehatza eta hautapenerako irizpideak; prozedura hauek guztiak aurrez finkatutako formulario batean bildu daitezke.

### Gastuaren egiaztagiri eskasak edo okerrekoak

Jaiak eragindako gastuetatik (6,8 milioi pta.), 17 ordainketa-egiaztagiri garrantzitsuenak aztertu ditugu; batean ez dagoela inongo justifikaziorik ikusi dugu (168 mila pezeta) eta beste 10etan (2,2 milioi pezeta), aurkeztutako agiriek ez dituzte derrigorrezko betekizun formalak osatzen, jaso izanaren agiri edo okerreko ordainagiriak baitira (BEZ, IFZ, zenbakia, eta abar adierazi gabe).

### Talde politikoei bertaratzeagatik dietak edo dirulaguntzak

Udalak 1,2 milioi pezeta ordaindu zizkien 3 udal talde politikoei; kopuru hori kalkulatzeko, zenbat batzorde edo osoko bileretara joan asmo duten hartzen da kontutan.

Gai honen gaineko udal arautegiari 11/99 Legearen aldaketak erantsi. Parte hartzeagatiko dietak direla eta, bileretan egiaz parte hartutako kopuruaren arabera ordaindu behar dira eta horiei atxikipena egin.

### Dirulaguntzak

1998ko ia dirulaguntza guztiak izendunak ziren eta lehiaketa bidez emandako laguntzak zirenean, bazegoen nolabaiteko arautegirik, etxerako laguntza eta kultur eta kirol erakundeak zirenean salbu.

Laguntzak ordaintzeko unean, Udalak ez die onuradunei eskatzen euren obligazio fiskaletan, eta kasua denean Gizarte Segurantzakoetan, gaurkotuak daudelako egiaztagiria.

Gerora ere, ez da egiaztatzen onuradunak dirulaguntzen baldintza eta helburuak betetzen dituela.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Etixerako laguntza eta kultur eta kirol elkarteei laguntzak ematea arautu. Komenigarria izan daiteke dirulaguntzak emateko prozesua arautuko duen ordenantza orokor bat garatzea.

Ordainketa egin aurretik egiaztatu onuradunak eguneratuak dituela bere obligazio fiskal eta sozialak.

Kasu guztietan laguntzen emakida eragin zuen jarduera bete dela egiaztatzeko eskatu eta azken epearen ordainketa dokumentazio hori aurkeztu ondoren ordaindu.

## Diruzaintza

98.12.31n diruzaintzaren saldoa 144,2 milioi pezetakoa da eta hiru kontu korrante arruntetan gauzatzen da; 99.12.31n ere egoera bera gertatzen da.

Diruzaintza gaindikinei errentagarritasuna atera.

Diruzaintzaren kudeaketa erraztu daiteke eragiketarik ez duen kontuetako bat itxiz eta ordainketarako egun finkoak ezarriz (astero, hamabostero edo hilabetero).



## ERANSKINAK

### A.1.KONTRATAZIOAREN ANALISIA

Tokiko sektore publikoaren 2. eta 6. kapituluetakoko gastuaren exekuzioa, batik bat, honako arau hauek zuzentzen dute:

- 7/85 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen/TAOAL.
- 781/86 Legegintzako Errege Dekretua, Toki Araubidearen Alorrean Indarreko Legezko Xedapenen Testu Bateratua.
- 13/95 Legea, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzkoa /APKL.
- 3410/75 Dekretua, Estatuko Kontratazioari buruzko Arautegi Orokorra eta hori aldarazteko xedapenak.
- 1005/74 Dekretua, Aholkularitza edo Zerbitzu Enpresekin Laguntza Kontratuei buruzkoa.
- 2757/85 Errege Dekretua, Ezohiko Lan Berariazko eta Zehatzen Kontratazioari buruzkoa.

APKLren 57. artikulua publikitate eta lehiaketa betekizunetatik salbuesten ditu kontratu txikiak, hau da, 5 milioi pezetatik beherako kostua dutenak (APKLren 121. art.) eta 2 milioi pezetatik beherako hornidura eta laguntza teknikoak (177. eta 202. art.).

Gure azterketa arautegiaren alderdi nagusiak egiaztatzea izan da, egindako frogak esleipen prozesuetan oinarritu ditugula. Horretarako, 1998an 2 milioi pezetatik gorako eragiketak zituzten 3 hirugarrengo bakarrak hautatu ditugu, eta hauei bigarren seihileko esleipen nagusiak gehitzen zaizkie (urtealdian gasturik eragin ez dutenak):

KONTRATAZIOAREN ANALISIA		Milioi pezetan			
Helburua	___Kopuruak___		___Esleipena___		
	Esleip. egiazt. 98		Modua	data	Hutsak
Herriko Plazan lurrazpiko aparkalekua .....	40,4	(*) 3,7	Enkantea	97/02/27	D E
Herriko Plaza: jolastokiaren urbanizazioa .....	38,2	(*) 27,4	Enkantea	98/03/05	D
Gune berdeen mantenimendua .....	2,2	2,2	Lehiaketarik g.	98/05/07	A C D
Edurka pabiloia: teilatua zaharberritzea .....	5,1	-	Kontsultak	98/07/02	B C D
Edurka pabiloia: gaztetxerako prestaketa partziala .....	6,1	-	Enkantea	98/09/03	D
<b>GUZTIRA</b>	<b>92,0</b>	<b>33,3</b>			

(\*) Aurrekontu itxien kargura

- Hutsak
- A: lehiaketarik gabe esleitzea (APKLren 11.1 art.)
  - B: lehiaketa mugatua: eskaintzak eskatu arren, esleipena lehiaketa bidez gauzatu behar zatekeen (idem)
  - C: tramitazioa admin. plegurik gabe, ez aurrekontu/plegu tekniko, ez Ogasuneko egiazt. (APKLren 11.2, 20.f art).
  - D: fiskalizatu gabeko esleipenak (APKLren 11.2g art.)
  - E: baimenik gabeko aldaketak (APKLren 146. art. eta Obren Plegu Orok. 62. klausula).



## A.2.URTEKO KONTUAK

### ANOETAKO UDALA / Aurrekontuzko kontuak

A. 1998. URTEALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA							Miloi pta.
DIRUSARRERAK	___Aurrekontua___			Eskub.	Kobrak.	Egin	%
	Hasierakoa	Aldak.	B-bet.	Obligaz.	Ordaink.	gabeak	Egiter.
1.- Zerga zuzenak .....	28,7	-	28,7	27,4	26,7	0,7	96%
2.- Zeharkako zergak .....	13,5	-	13,5	12,8	12,7	0,1	95%
3.- Tasak eta prezio publikoak .....	22,7	-	22,7	26,9	24,2	2,7	119%
4.- Transf. eta dirulag. arruntak .....	102,5	-	102,5	108,6	108,0	0,6	106%
5.- Ondarezko sarrerak.....	1,3	-	1,3	2,5	2,5	0,0	192%
6.- Inbertsioak besterenganatzea .....	40,0	-	40,0	-	-	-	-
7.- Kapital transf. eta dirulag. ....	48,1	-	48,1	-	-	-	-
8.- Finantza aktiboen aldaketa.....	-	-	-	-	-	-	-
9.- Finantza pasiboen aldaketa .....	21,9	-	21,9	-	-	-	-
<b>DIRUSARRERAK GUZTIRA</b>	<b>278,7</b>	<b>-</b>	<b>278,7</b>	<b>178,2</b>	<b>174,1</b>	<b>4,1</b>	<b>69%</b>

#### GASTUAK

1.- Langile gastuak .....	67,3	(1,7)	65,6	63,0	63,0	-	96%
2.- Zerbitzuak eta ondasun erosketak .	42,9	1,1	44,0	37,7	36,2	1,5	86%
3.- Finantza gastuak .....	0,8	(0,2)	0,6	0,6	0,6	-	100%
4.- Transf. eta dirulag. arruntak .....	24,5	0,6	25,1	22,1	18,7	3,4	88%
6.- Inbertsioak.....	138,7	0,1	138,8	58,2	15,6	42,6	42%
7.- Kapital transf. eta dirulag. ....	-	-	-	-	-	-	-
8.- Finantza aktiboen aldaketa.....	-	-	-	-	-	-	-
9.- Finantza pasiboen aldaketa .....	4,5	0,1	4,6	4,6	4,6	-	100%
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>278,7</b>	<b>-</b>	<b>278,7</b>	<b>186,2</b>	<b>138,7</b>	<b>47,5</b>	<b>67%</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>(8,0)</b>	<b>35,4</b>	<b>(43,4)</b>	<b>-</b>

#### B. AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA

Miloi pta.

	Hasier. egitekoa	Zuzen- ketak	Balioga- betzeak	Kobrak./ Ordaink.	Amaier. egitekoa
Zordunak .....	167,0	3,3	0,2	166,8	3,3
Hartzekodunak.....	164,8	-	1,4	74,7	88,7
<b>AURREKONTU ITXIAK</b>	<b>2,2</b>	<b>3,3</b>	<b>(1,2)</b>	<b>92,1</b>	<b>(85,4)</b>



C. AURREKONTUAREN EMAITZA	Miloi pta.
Likidatutako eskubideak .....	178,2
- Aitortutako obligazioak .....	(186,2)
Itxitako urteald. ordaintzeko saldoak. baliogab. ....	1,4
- Itxitako urteald. kobratz. saldoak gehitzea .....	3,1
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA .....</b>	<b>(3,5)</b>
DG finantzatutako gastuengatik emaitza .....	-
Finantza-desbideraketek eragindako emaitza .....	-
<b>Doitutako aurrekontuaren emaitza .....</b>	<b>(3,5)</b>

D. DIRUZAINZA GERAKINA	Miloi pta.
Diruzaintza gerakina 98.1.1ean .....	15,6
1998ko aurrekontuaren emaitza .....	(3,5)
- Kaudimengabeziatarako hornid. aldaketa .....	-
<b>DIRUZAINZA GERAKINA 98.12.31n .....</b>	<b>12,1</b>
Diruzaintza .....	144,2
Aurrekontuko zordunak .....	7,4
Aurrekontuz kanpoko zordunak .....	-
Aurrekontuko hartzekodunak .....	136,2
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....	3,3
Kaudimengabeziatarako hornidura .....	-
<b>DIRUZAINZA GERAKINA 98.12.31n</b>	<b>12,1</b>
Finantzaketa desbideraketengatik DG .....	-
Gastu orokorretarako DG .....	12,1

E. ZORPIDETZA	Miloi pta.
Zorra 98.12.31n .....	7

F. LANGILERIA	(*) Pertsonak		
Lanpostua	Tald.	Finkoa	Inter. Aldib.
Idazkaria .....	B	1	
Arkitekto teknikoa (%27ko dedikazioa) .....	B	1	
Gizarte laguntzailea .....	B		1
Musika irakasleak (%60-65eko dedikazioa) .....	B	4	
Administraria .....	C	1	
Liburutegiko arduraduna (%52ko dedikazioa) ..	C		1
Administrari laguntzailea .....	D	1	1
Eginkizun ugarietarako ofiziala .....	D	1	
Bide garbitzailea .....	E	1	
Eraikinen garbitzaileak .....	E	2	
<b>Aldibateko bestel. kontratuak (2 edo 3 hilab.) ..</b>			<b>16</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>12</b>	<b>3</b>
			<b>16</b>

(\*)1998an ordainsariak eskuratu dituzten pertsona kopurua





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/TVCP, conforme a lo establecido en la Ley 1/88 reguladora del mismo, ha realizado una revisión de la actividad económico-financiera del Ayuntamiento de Anoeta en el ejercicio 1998, incluida en el Programa Anual de Trabajo marzo 1999-marzo 2000.

El trabajo realizado ha consistido en un análisis diagnóstico de la actividad municipal, por lo que debe señalarse que no se han seguido en la revisión todos los procedimientos propios de una fiscalización completa, habiéndose aplicado pruebas abreviadas, tanto en su extensión como en los alcances de las mismas.

Las áreas analizadas han sido las siguientes: organización general, controles presupuestarios y contables, procedimientos aplicados en la gestión y recaudación de tributos, gestión de personal, contratación de servicios y obras, y concesión de las subvenciones.

Aunque el informe no emite una opinión sobre el cumplimiento por el Ayuntamiento de la normativa legal que le es aplicable, ni una opinión de auditoría financiera sobre la Cuenta General aprobada, las deficiencias detectadas en la revisión se describen en los epígrafes I y II de las Conclusiones. A continuación, el epígrafe III.1 presenta un análisis financiero del Ayuntamiento, y el III.2 propone una serie de sugerencias complementarias para mejorar la gestión del mismo.

El Ayuntamiento de Anoeta tenía a 1 de enero de 1998 una población de 1.749 habitantes, formando parte del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, de la Mancomunidad Herri Irakaskuntza (para el mantenimiento de un centro de enseñanza), de la sociedad Tolosaldea Garatzen, SA (para el desarrollo económico comarcal), y de la asociación de montaña Tolosaldea Mendi Nekazaritza Elkartea.



## CONCLUSIONES

### I. CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

En nuestra revisión, realizada con el alcance descrito en la introducción se han detectado los siguientes incumplimientos significativos:

#### Control presupuestario y contable

- La Liquidación del presupuesto de 1998 ha sido aprobada por el Alcalde el 26.5.99, con un retraso de dos meses con respecto a los plazos exigibles. No se ha confeccionado, a la fecha de este informe, la Cuenta General, por lo que el Pleno no ha revisado ni aprobado las cuentas municipales de dicho año (arts. 49 y 63 de la NF4/91).

#### Patrimonio e inventario

